

Arrue proiektua (2)

2014ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen garrantzi handiko liburua (290 orrialde) hiru hizkuntzatan: "Ikasleak hiztun, 2011ko Arrue proiektua". Arrue proiektuaren txostena da, bai eta iruzkin luze bat ere, 23 hizkuntzalarik osatua.

Arrue proiektua ikerketa bat da ikasleen hizkuntza jokamoldeaz, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egin, Lehen hezkuntzako 4. mailan (9-10 urte) eta Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. mailan (13-14 urte), ikasle guziengan. Orotara 35.844 ikasle. Hemen lehen mailako CM1 et kolegioko Hirugarrenekoan adinak dira. Heburua zen 2011ko ikasleen hizkuntza erabileraren diagnosia egitea.

Arrue proiektua 3 urratsetan aurkeztuko dugu:

1. inkestako ikasleen ezaugarriak;
2. euskararen erabilera ikasle haueganik;
3. hizkuntzalari batzuren oharra.

Ikasleen mintzamoldea

Helburua zen neurtzea, EAEko 10 eta 14 urtekoek non eta nola erabiltzen duten euskara. Lau komunikazio leku aztertu dituzte, etxea, eskola kanpoa eta hedabideak. Toki bakoitzea egoera ezberdinak hautatu dituzte : etxean familiakoan artean, eskolan irakaslearekin edo gabe, kanpoan eta komunikabide ezberdinekin. Orotara 18 komunikazio egoera ikertu dituzte.

Irakasleen erantzuna errenteko, bi egin-molde ezberdin erabili dituzte.

Lehen egin-moldea - 6 mintzamolde definitu dituzte: *beti euskaraz, euskaraz gehiago, bi hizkuntzetan berdin, gaztelaniaz gehiago, beti gaztelaniaz, beste hizkuntza batean*. 6 mintzamolde 18 egoeratan kolorezko diagrama politak agertzen dira, baina irakurtzeta ez da biziki erretx.

Adibidez galde hau : *Etxekoek, atera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...) zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?*

Hona 10 urteko ikasleen erantzunak (1., 2. eta 3. zutabeetan).

1. <i>Réponses</i>	2. <i>Ikasleen maiztasuna</i>	3. <i>Ikasleen %</i>	4. <i>Euskararen koefizientea</i>	5. <i>Euskararen lekua %</i>
Euskaraz bakarrik	2.033	11,0	1	11
Euskaraz gehiago	1.444	7,8	0,75	6
Bietan berdin	1.507	8,2	0,50	4,1
Gaztelaniaz gehiago	2.872	15,6	0,25	3,9
Gaztelaniaz bakarrik	9.951	54,1	0	0
Beste hizkuntza batean	596	3,2	0	0
Orotara	18.403	100,0		25%

Ene hautua da euskararen erabilera erakustea ehuneko bakar baten bidez komunikazio egoera bakoitz. Hortarako metatu ditut mintzamolde guzietan euskarari ematen dioten lekua : koefizienteak 1, 0,75, 0,50, 0,25, 0 et 0, hurrenez hurren (4. eta 5. zutabeak). Hurbilketa honek ideia bat ematen digu ikasleek, hitz egiterakoan, euskarari ematen dioten lekuaz. Adibidez 10 urteko ikasleen arabera, familia guzia bildua delarik, 100 elkarrizketatik 25 euskarazkoak ziren. Kontrastez gaztelaniaren neurria %72koa da, beste hizkuntzena, hauek bana beste %3ra heltzen direlarik.

Bigarren egin-moldea – Askoz sinpleago, hiru erantzun hauturekin: *Beti edo gehienetan euskaraz, beti edo gehienetan gaztelaniaz, beste hizkuntza batean*. Kasu honetan euskararen lekua hitzunen proportzioak neurtzen du.

Etxean

Euskararen erabilera familian (%)

	Mahaian	Amarekin	Aitarekin	Gurasoen artean	Aurrideen artean
10 urtekoak	25	26	24	14	31
14 urtekoak	22	21	21	12	27

Egoera guzietan, euskara gehiago erabiltzen dute gazteagoek, hau ez baita aitzinamendu bat, jakinez nerabezaroan finkatzen direla heldutasunean biziko diren baloreak. Laburbilduz, euskararen lekua familian, komunikazio denboraren laurdena (1/4) da gurasoen eta 10 urtekoen artean, bostena (1/5) 14 urtekoekin, heren ttipi bat (1/3) ainai-arreben artean, zazpiren bat (1/7) gurasoen artean.

Gurasoak ez dira eredugarri euskararen erabikerari buruz. Dela 10 urtekoekin ala 14 urtekoekin, askoz euskara gehiago entzuten da anai-arreben artean ezinez eta gurasoen artean (%31 versus %14 eta %27 versus %12 hurrenez hurren).

Beste ahulgune bat: eskolako euskararen ikaskuntzak ez du aitzinarazten familiako transmisio naturala. Euskara ama hizkuntza da haurrentzat, bakarrik (%20) edo beste hizkuntza batekin (%14). Ondorioz euskarak %27ren lekua bazuen familian bi adin taldekoak haur ttipiak zirelarik. Orain familiako bana besteko erabilera ("mahaian") %25ekoa da edo %22koa adinaren arabera. Anartean beraz etxean, ama hizkuntzaren erabilerak 2 puntu galdu ditu 10 urtekoekin eta 5 puntu 14 urtekoekin. Froga hor da famili eta eskolaren arteko lankidetzaren beharrezkoa dela.

Eskola giroan

Euskararen erabilera eskola giroan(%)

	Gelan ikaskideekin	Jostalekuan ikaskideekin	Gelan irakasleekin	Kanpoan irakasleekin	Irakasleak elkarrekin
10 urtekoak	64	37	77	68	74
14 urtekoak	36	24	65	57	60

Hala jostalekuan nola ikasgelan, euskararen erabilera gorenean da irakasleak hor direlarik: %77 eta %68 gazteeneta, %65 eta %57 besteetan.

Ikasgela barnean, beren artean direlarik, alderantzizko jokamoldea ageri da 10 eta 14 urtekoekin: bi heren euskaraz gazteenen artean, heren bat zaharragoen artean. Ezberdintasun gutiago da jostalekuan beren artean direlarik, heren handi bat gazteenen artean eta laurden ttipi bat gaztetxoan artean.

Laburbilduz, ikasleek euskaraz ari dira askoz gehiago eskolan ezinez eta ikasgelatik kanpo. Askoz gehiago irakasleekin ezinez eta beren artean bai ikas-gelan, bai eta jostalekuan ere. Aldi oroz, euskara nabarmen gehiago derabilte 10 urtekoek ezinez eta 14 urtekoak (%62 versus %46 hurrenez hurren).

Eskolan aztertu diren 8 komunikazio egoeretan euskara gorenean da ikasgelan 10 urtekoak irakaslearekin direlarik (77%), apalenean 14 urtekoak elkarren artean direlarik jostalekuan. Bana beste eskolako egoera guzietan euskararen lekua %54 da, denboraren erdia baino doi bat gehia go.

Eskolatik kanpo

Euskararen erabilera eskolatik kanpo(%)

	Kanpoko ekintzak	Uda leku, kanpamendu	Usaiako Webgunea	Lagunekin internetez
10 urtekoak	27	42	16	26
14 urtekoak	26	35	16	22

Euskararen erabilera gaztelania baino ahulagoa da eskolaz kanpoko ekintzetan, kirola ala esku-lan. Doi bat gehixago oporretan. Beren artean txateatzen dutelarik 10 urtekoak euskaraz ari dira %26tan, 14 urtekoak % 22tan.

Kultura kontsumoa

Euskara kultura kontsumoan (%)

	Tele saio hautatuena	Abeslari hautatuena	Irrati saio hautatuena	Azken filma zineman
10 urtekoak	14	30	14	13
14 urtekoak	04	25	04	04

Komunikabideek ez dute biziki laguntzen euskararen erabilera. Telebistaren aitzinean, irratia ondoan edo zineman, 10 urtekoen %15ek bakarrik hautatzen dituzte euskarazko ekoizpenak. Askoz gutiago 14 urtekoetan, %4. Alderantziz gaztelaniaren leku %85 eta %94koa da, hurrenez hurren. Webgunea hautatzerakoan bi adin taldeak hein berean dira %16en lekua emanez euskarari.

Musika taldeak eta kantariak entzuten dituztelarik hizkuntzetan ezberdintasun gehiago bada. 10 urtekoetan kantuak euskaraz dira %30, gaztelaniaz %85, ingelesez %38. 14 urtekoetan kantuak euskaraz dira %12, gaztelaniaz %41, ingelesez %47. Gazteenekin gaztelania da nagusi, eta gaztetxoetan ingelesa. Guzti hau 27. orrialdeko grafikoen arabera. Haatik 81. orrialdeko zenbakietan euskarazko kantuaren hautua zabalago da: %30 hamar urtekoetan, eta %25 besteetan.

Zergatik komunikabideak ez dira lagungarriago euskararentzat? Egia da gazteek emankizunen hautua badutela, baina ekoizpenen eskaintza ez da beren esku. Aldiz gazteak beren artean direlarik, irakaslerik gabe ikasgelan edo jostalekuan, anai-arreben artean, lagunartean buruz buru edo interneten bidez ondorioak hobeak dira: 5 autonomia egoera hauetan euskararen bana besteko lekua %40 da hamar urtekoetan eta %29 hamalau urtekoetan.

Bi adin taldeen arteko aldea kezkarria da. Neurketa zuzenago bat egiteko, euskararen bana besteko lekua kantifika dezagun egoera guzietan: Eskolan euskararen lekua %56 da, familian %21, kanpoan eta hedabideetan %14. Beraz zuzen da erratea *"eskola euskararen gotorlekua"* dela. Bestalde familia bidezko transmisioaren sustengua baitezpadakoa da eta komunikabideetan euskarazko ekoizpen gehiago gazteei eskaini behar zaie.

Zehaztasunak

Laburpen honen 3. zatian euskararen erabilera laguntzen duten faktoreak aztertuko ditugu. Gainera adituen eta arituen gogoetak emanen ditugu euskararentzat lagungarria liteken egoeraz, Ipar Euskal Herriaren berezitasunez, pedagogiaren hobekuntzaz.

Erramun Bachoc 2015-03-25